

# Aurtengo udal aurrekontuak hil honen bukaerarako onartzen saiatuko direla adierazi du Julian Eizmendi alkateak

**Gizartea** » Herenegun egindako martxoko ohiko udalbatzarrean 2009ko udal aurrekontuak luzatzea erabaki zuten

## NEREA URANGA

Oraindik aurtengo udal aurrekontuak onartu gabe dituztelako, iazko aurrekontuak luzatzea erabaki zuten herenegun, ohiko udalbatzarrean. Gai hori lantzen ari zirela, hil honen bukaerarako aurtengo aurrekontuak onartzen saiatuko direla adierazi zuen Julian Eizmendi (E.A.J) alkateak. «Batzordeetan hizketan ari gara, eta saiatuko gara hilabete honetan udal aurrekontuak onartzen», esan zuen.

Alkateak udalbatzarrean azaldu zuenez, aurreko urteko aurrekontuak luzatuta, ohiko kontzeptuak dira luzatzen direnak, «inbertsio berezietakoak-eta ez dira kontutan hartzen».

Iazko udal aurrekontua urte erdian onartu zuten; hau da, ekainaren 4ko udalbatzarrean adostu zuen Udalbatzak, hautetsi independentisten, EAkoen eta Aralarrekoen aldeko bederatzita botorekin. Iazko udal aurrekontu orokorra 22.010.921 eurokoa izan zen; 2008koarekin alderatuta, %18,76 txikiagoa.

Aurrekontua luzatzeko eraba-

kiaz gain, ibilgailuen gaineko zergaren ordainketak zehazteko funtsezko osagaiak arautzeko zerga agintarua moldatzeari hasierako onarpena ere eman zioten udalbatzarrean, aho batez.

## Ibilgailuen zergan aldaketak

Ibilgailuen zergaren gainean bi aldaketa egin dituztela azaldu zuten

udal agintariak. Batetik, ibilgailuen zergaren gaineko tarifen oinarritzeko taula aldatu dute, 4/2009 Foru Arauaren bidez. Hori dela eta, Azpeitiko Udalaren tarifak mantentzeko hainbestekariak zehaztu dituzte. «Derrigorrezkoa izan da hori egitea, iaz 2010erako onartutako tarifak mantentzeko», azaldu zuten alkateak.

Bestetik, ibilgailuen zerga ordaintzerakoan salbuespenak izateko bete beharrekoetan ere aldaketak egin dituzte. «Ibilgailuen zergan salbuespenak izateko, ibilgailuak hamalau zaldi fiskal baino gutxiago izan behar ditu, eta ibilgailuen jabeek mugikortasun arazoak izan behar dituzte», adierazi zuten Eizmendik.



## Kale berriak Altuna Errota du izena

**HIRIGINTZA** » Urrestillako Altuna lur eremuko kale berriari Altuna Errota kalea izena jartzea aho batez onartu zuten, herenegun ohiko udalbatzarrean. Zein izen jarri erabakitzerako orduan, kontuan izan dute

gune hori Altuna bezala ezagutzen dela, eta garai batean bertan errota bat egon zela. Bertan eraiki berri dituzten etxebizitzetako karrerek 1, 3 eta 5 zenbakiak izango dituztela ere zehaztu dute. NEREA URANGA

# Euskara gehiago erabiltzeko, Kutxarekin hitzarmena sinatuko du Azpeitiko Udalak

**Euskara** » Urola Kostako udal guztiekin hitzarmena sinatzeko ekitaldia egingo dute apirilaren 29an, Azpeitian

## NEREA URANGA

Euskararen erabilera areagotzeko Azpeitiko Udalak Kutxarekin hitzarmena sinatuko du. Herenegun erabaki zuten hori Udalbatzak, aho batez. Hitzarmenaren helburua, Udalak Kutxarekin dituen harremanak «ahal den guztietan» euskaraz izatea dela esan du Julian Eizmendi Azpeitiko alkateak. Urola Kosta eskualdeko udal guztiekin sinatuko du hitzarmena Kutxak, eta izenpetze-ekitaldia Azpeitian egingo dute, apirilaren 29an, atzo [www.erabili.com](http://www.erabili.com) webgunean azaldu zuten.

Bost urterako hitzarmena da,

eta beste bost urtez luzatzeko aukera egongo da. Baina bi aldeak ados egonez gero, hitzarmena berriaz aukera egongo litzateke. Eta, bost urteko epea baino lehen akordioaren edukia beteta dagoela ikusten badute, bi aldeek beste hitzarmen bat egiteko aukera ere aurreikusiko dute.

Akordioan hitzartutakoak jarraipena izan dezan, Jarraipen Batzordea osatuko dute, eta hori arduratuko da neurketak bideratzeko. Batzorde hori gutxienez urtean behin bilduko da.

## Oinarritzeko hitzarmena

Azpeitiko Udalak herenegun onartutakoa oinarritzeko hitzarmena da, «gutxienekoak ezartzen dituen akordioa», [www.erabili.com](http://www.erabili.com)-ek zehazten duenez.

Udalbatzarrean alkateak azaldu bezala, Udala Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN)

baitan udaletxeko langileen eta herritarren artean euskararen erabilera areagotzeko ahaleginetan ari da. «Kutxak, berriz, bezeroei harreman-hizkuntza aukeratzeko parada eman nahi die, euskararen erabilera sustatzeko, indartzeko eta sendotzeko asmoarekin», azaldu du Eizmendik.

Bi erakundeek hitzartu duten akordioaren arabera, elkarren arteko harremanak, idatzizkoak zein ahozkoak, euskaraz izango dira, «ahal den guztietan». Horrez gain, Kutxak bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan euskararen presentzia areagotzeko «ahalegin berezia egiteko konpromisoa» hartuko du.

## Oriotik Azkoitira arteko

Akordioa Gipuzkoa Donostia Kutxak euskararen erabilera sustatzeko martxan jarri duen ekimenaren baitakoa da. [Erabili.com](http://Erabili.com)-en

diotenez, Gipuzkoako eskualdeetan hitzarmen berbera ari da sinatzen tokian tokiko udalekin.

## Hitzartutako akordioaren arabera bi erakundeek euskaraz izango dira

Gipuzkoako aurrezki erakundeak Buruntzaldean eta Debagoienan sinatu zituen aurrenekoak, eta orain Urola-Kosta eskualdearen txanda heldu da.

Oriotik hasi eta Azkoitia bitarteko udalerririk guztiek sinatuko dute Kutxarekin euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena. [Erabili.com](http://Erabili.com) webgunean azaldu dutenez, sinadura ekitaldi bat ere egingo dute, Kutxaren eta udalen ordezkarien parte-hartzearekin. Ekitaldi hori Azpeitian egingo dute, apirilaren 29an.

## Ainhoa Goenagak Espainiako Txapelketarako txartela lortu du

**Kirola** » Bergarako igeri lehiaketan Ana Alberdik Euskal Herriko Txapelketa jokatzeko aukera irabazi du

## N. URANGA

Izarraitz Igeri Elkarteko Ainhoa Goenaga Infantil mailako igerilariak hilaren 26tik 28ra bitartean Madrilen jokatu du Espainiako Txapelketan hartuko du parte. Joan den asteburuan Bergaran 100 metro bizkarrean egindako lanari esker Espainiako lehiaketa jokatzeko aukera izango du Goenagak. Bergaran, Gipuzkoako Infantil, Junior eta Promesen Neguko Txapelketa jokatu zen.

Ana Alberdi azpeitiar igerilaria ere izan zen Bergarako lehiaketan, hau Senior mailan aritzen da. Honak, 50 metroan lortutako denborari esker, asteburuan Getxon jokatu du Euskal Herriko txapelketan hartuko du parte.

## Laburrak

### Cambridgeko azterketa egiteko aukera, Iraurgin

**HEZKUNTZA** » Iraurgi Ikastetxean Cambridgeko ingelerazko azterketak egiteko izena epea zabaldu dute. Izena hilaren 12ra bitartean eman daiteke Iraurgi Ikastetxean bertan. Informazio gehiago jaso nahi duenak Iraurgira jo edota 943 810210 telefono zenbakira deitu dezake.

### Futbol Eskolako 60 lagun Reala ikustera doaz bihar

**KIROLA** » Lagun Onak Futbol Elkarteko Futbol Eskolako 60 lagun inguru bihar Reala-Numancia futbol partida ikustera joango dira. 1998an jaiotako neskek eta 2000n jaiotako mutilak joango dira Anoetara, autobusez, 15:30ean, Garmendipeko belar artifizialeko futbol zelaitik. 1999an jaiotako mutilak Zubietara joango dira bihar, 11:30ean.

### Lan Mobil ISBk Chantada hartuko du gaur, 18:30ean

**KIROLA** » EBA Ligako Lan Mobil Iraurgik Chantadaren kontra jokatuko du gaur, 18:30ean, Azpeitiko kiroldegian. Saikapenean aurretik du Galiziako taldea, «etxean azkena jokatu genuena baino hobeto jokatu beharra dugu Chantadari aurrea hartzeko», diote Iraurgikoek. Zaletuen beharra dutela azaldu dute eta gaur kiroldegira joateko eskatu diete saskibaloizaleei.